



Frutaren eguna eta askoz gehiago

HELBURUA

- Kontsumo-ohitura osasungarriagoak sustatzea.

MATERIALAK

- ◆ Fruta.
- ◆ Argazki-kamera.
- ◆ Kartulina eta errotuladoreak.

HAUR HEZKUNTZAN, ohikoa izaten da hamaiketako egiteko janariak (gailetak, ogia...) ikasleek txandaka eramatea.

Baina, dirudienez, frutak ez du arrakasta handirik txikienez artean. Hori dela eta, egunero produktu naturalen kontsumoari garrantzia ematen eta kontsumo hori bultzatzen saiatzea proposatzen dizuegu.

Hasteko, gure planaren berri emango diegu familiei, eta lankidetzara eskatuko diegu. Urtaro bakoitzeko fruten zerrenda, txanden egutegia, bakoitzak eraman behar dituen kantitateak eta abar emango dizkiegu.

Astean behin, ikastalde osoa biribilean jarrita, egokitu zaion fruta deskribatuko du ikasle bakoitzak: tamaina, kolorea, zaporea, ehundura, zeren antza duen, prezioa —baldin badaki—, eta abar.

Frutaren txokoa

Kartulinetan, frutak marraztu eta horman ipin ditzakegu ikusgai.


Albura prestatu

Album bat egingo dugu, gure jardueren memoria gisa, eta bertan sartuko ditugu erakusketa bakoitzean ateratako argazkiak, familiei bidalitako gutunak, egin ditugun plastika-lanak eta abar.

Frutekin loturiko ariketak:

Manipulazio-ariketak

Errezetak —zukuak, marmeladak...—, eskolako baratzerako konposta, eta abar.



Plastika-ariketak

Collagea haziekin; inprimatze-lanak edo estanpazioak fruta-xerra edo atalekin (sagarrak, madariak... erabiliz); fruta lehortuen azal-zatitxoekin egindako orri-markatzailea...

Beharbada, horrelako zerbait antolatzea oso zaila dela usteko duzue; CEIDAn kontsulta ditzakezuen argitalpenetan, ordea, iritzia aldaraziko dizueten ideia asko eta asko aurkituko dituzue.

Bibliografia

- ◆ BERGERET, Lazarine: **Jardinero sin jardín**. Hogar del libro.artzelona, 1986
- ◆ SOUTER, Gillian: **Cómo hacer regalos y objetos con elementos naturales**. Cúpula.artzelona, 1997.
- ◆ ALLEN, J. **Cosas para hacer con la naturaleza**. Ed. Plesa. SM Ediciones. Madril, 1981.